

Entitateak prest Euskaraldian aritzeko

Euskaraldian parte hartuko duten Lasarte-Oriako zenbait entitatekin bildu da TXINTXARRI aldizkaria; egitasmoan parte hartzera zergatik animatu diren azaldu dute / 8-9

Hondakinak "behar bezala" bereizi eta birziklatzeaz sentsibilizatzeko kanpaina, abiatzear / 2

Solaskide kanpainan parte hartu nahi duten herritarrek izena emateko aukera dute oraindik / 4

Espainiako zein Europako Txapelketan izandako esperientzia berri eman du Asier Pozo txirrindulariak / 10

Euskararen X. Maratoiaren asteburua behar zuen urriaren 17 eta 18koak; urtebete barru ospatuko dugu / 16



Liburu artera itzuliko dira

Irakurle Txokoak urriaren 22an abiatuko du ikasturte berria, Miren Amurizarekin / 5

TXINTXARRI



Badator GAZTE KLUBA!

Urriaren 23tik aurrera
LH3, LH4, LH5 eta LH6
...eta larunbatetan ekintza bereziak

ostiralero
17:30-19:30

2020-2021

Informazioa: 943 37 14 48 eta 695 78 53 92 | aisia@ttakun.eus | **Izen-emateak:** <https://labur.eus/gzk2021>






Agustin Valdivia alkateak eta David Mateos Zerbitzuetako batzordeburuak aurkeztu dute 'Guztion kontua da!' kanpaina. TXINTXARRI

Birziklatu beharraz kontzientziatzeko

Lasarte-Oriako Udalak 'Guztion kontua da!' kanpaina abiatuko du urriaren 19an, astelehenez, "ahalik eta lasarte-oriatar gehienek" hondakinak birziklatzearen garrantziaz kontzientzia har dezaten. Karpa ibiltariak jarriko dituzte azaroaren 13ra arte, auzoz auzo

Txintxarri

"Birziklatzea guztion kontua da. Lasarte-oriatarrek sentsibilizatu behar ditugu, ikusarazi hori dela bide bakarra", adierazi du herriko alkate Agustin Valdiviak *Guztion kontua da!* kontzientziazio kanpainaren aurkezpenean. Udalak eta FCC garbiketaren enpresak ondu dute. Berak eta Zerbitzuak saileko zinegotzi David Mateosek eman dituzte egitasmo horren nondik norakoak.

Urriaren 19tik azaroaren 13ra arte, bi egunak barne, karpa ibiltari bat ikusiko dute herritarrek auzoz auzo. Segun eta zein den eguna edo hilabetea, toki batean edo bestean egongo da –eskuineko zatiduran kontsulta ditzakezue toki, egun eta ordutegiak-. Dinamizatzailerik arduratuko da birziklatze-prozesuaren azalpenak emateaz herritarrei: hondakinak nola bereiztu behar diren, zaborrontzietara botatzen dugun hori nola birziklatzen den eta nora doan, botatako horrekin

merkaturatuko diren beste produktu batzuk egin daitezkeela, eta abar. "Lasarte-oriatarrek animatzen ditut karpa ibiltarira gerturatu eta sentsibilizatzera", adierazi du alkateak.

"Lortu nahi dugu Lasarte-Oriako birziklatze-tasa handitzea, eta baita ere gure etxeetan bereizten dugun materiala ahalik eta puruena izatea", esan du Mateosek. Zehaztu du ekosistema "gutxiago" kaltetuko lukeela herriak horrela, eta zerbitzua hobetu egingo litzakeela. "Oso garrantzitsua da hondakinen lehen bereizketa hori ongi egitea, birziklatze-prozesua hobeia izan dadin".

"Hondakinak bereizten dituen herritar bezala, ni behintzat gusturago sentitzen naiz ikusten badut nik zaborrontzira botatako material bat beste produktu bat sortzeko zikloaren parte dela ikusten badut", zehaztu du alkateak. "Gehiago birziklatuta, errefus gutxiago sortuko genuke, eta zabor gutxiago joango litzateke erraustegira".

Karpa ibiltaria, auzoz auzo

Herrian zehar jarriko du karpa ibiltaria udalak, 09:00etik 13:00era.

- **Okendo plaza:** urriaren 19, 20, 26, 27 eta azaroaren 12 eta 13an.
- **Jaizkibel plaza:** urriaren 22 eta 23.
- **Txartel kalea:** urriaren 29 eta 30ean.
- **Oztaran plaza:** azaroaren 2an.
- **Isla plaza:** azaroaren 3 eta 4ean.
- **Kale Nagusia (Brigitarren komentu alboan):** azaroaren 5 eta 6an.
- **Zabaleta auzoa:** azaroaren 9 eta 10ean.
- **Aralar plaza:** urriaren 21, 28 eta azaroaren 11n.

Proposamenak aurkez ditzakete herritarrek urriaren 26ra arte

Udalak aurrekontutik 500.000 euro bideratuko ditu lasarte-oriatarrek aurkeztutako egitasmoak gauzatzera

Txintxarri

Herritarrek aurkeztutako egitasmoek tokia izango dute aurrekontuetan. Udalak 500.000 euro bideratuko ditu lasarte-oriatarrek Lasarte-Oriarentzat diseinatutako egitasmoak gauzatzera. Proiektuek, hori bai, zenbait baldintza bete beharko dituzte Balioespen eta Esleipen batzordeak kontuan har ditzan: herriari zuzenduta egotea; 2021ean egiteko modukoa izatea; udalaren eskumenekoa izatea; eta "zehatza, xehea eta ekonomikoki ebaluagarria" izatea

eta gehien jota 500.000 euroko kostua izatea, besteak beste.

Txostenarekin batera "memoria txiki bat" aurkeztu beharko dute lasarte-oriatarrek. Azaldu beharko dituzte xehetasun batzuk, gutxi gorabeherako aurrekontua zein izango den eta proiektuaren izena zein izango den, adibidez. Udal erregistroan aurkeztu beharko dituzte proposamenak herritarrek urriaren 26a baino lehen, astelehenez. Telematikoki ere egin dezakete tramite hori, participacion@lasarte-oria.eus helbidera idatzita.

HAPOri buruz hitz egiteko saioa, urriaren 21ean

Hiri Antolamendu Plan Orokorra idazteko prozesuak aurrera darrai. Aurrerapen-txostena ikusgai dago udalaren web orrialdean urriaren 31ra arte, larunbatez. Datorren asteko asteazkenean, urriak 21, saio presentzial bat egingo dute kultur etxeko auditorioan, 18:00etan, HAPOran jaso beharreko irizpide orokorreari buruz hitz egiteko.

Herriko ikastetxeak berriz margotzeko obrak, adjudikatuta

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du Indenort PV SLU enpresa arduratuko dela Landaberri, Garaikoetxea-Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeen eraikinak berriro margotzeaz. Aurrekontuak hauek dira, hurrenez hurren: 46.265,02 euro, 56.932,69 euro eta 52.819,39 euro. Guztira, lanen kostua 156.017,10 eurokoa izango da.

Enpresa txikiak sortzeko deialdia 15.000 eurokoa da

Urriak 31 da laguntzak eskatzeko azken eguna. Herriko hirugarren sektorea indartu nahi du udalak

Txintxarri

Bosgarren urtez jarraian, Lasarte-Oriako Udalak merkataritzaren, ostalaritzaren edo zerbitzu pertsonalen arloan lehen pausoak eman nahi dituzten enpresei zuzendutako laguntzak eskainiko ditu. Guztira, 15.000 euro banatuko ditu hiru lerro desberdinen bidez, eta ez 35.000, udalak aste honetan ohar batean zehaztu duenez. Eskera egiteko azken eguna urriaren 31 izango da, larunbata. Lasarte-Oriako hirugarren sektorea indartu nahi dute deialdi honi esker. Aurtengo deialdia

"bereziki garrantzitsua" dela azpimarratu du alkateak. "COVID-19ak eragindako egoerarengatik laguntza horiek oso baliagarriak izango dira". Merkataritza jarduerako enpresak eskatu ahaliko dituzte laguntzak, beti ere, deialdiko baldintzak betetzen badituzte. Horien artean, 2019ko azaroaren 1etik 2020ko urriaren 31ra arte sortu izana dago, egoitza soziala eta fiskala Lasarte-Orian egotea edo mikroenpresa izatea, 10 langile baino gutxiago izatea. Informazio gehiago eskura daiteke www.lasarte-oria.eus webgunean.

Gai ugari hizpide galdera eta erreguen txandan

Ordu erdi ingurukoa izan da urriko ohiko udalbatzarra. Gai-zerrendako hiru puntuak azkar batean onartu eta gero, luzeago jardun dira galdera eta erreguen txandan: Atsobakar egoitzaz eta udal zerbitzu, instalazio eta langileriaz, besteak beste

Iñigo Gonzalez Sarobe

Gai-zerrenda laburra izateak ez du esan nahi gero udalbatzarra ere motza izango denik. Urrikoa, ordea, horrelakoa izan da: ordu erdi inguruz aritu dira udal korporazioko kideak. Galdera eta erreguetara iritsi aurretik, ondoko puntu hauek onartu ditu udalbatzarrak: Ogasun batzordearen eta Kontuen Batzorde Bereziaren lehendakartzaren ordezkartzaren kontu-ematea; PSE-EEko zinegotzien liberazioak aldatzea eta udaleko ondasun eta eskubideen 2019ko inentarioan egindako aldaketak.

Atsobakar egoitza, udal instalazio, zerbitzu eta pertsonala, pleno saioak nola egin COVID-19aren egoerak okerrera egiten badu, herriko anbulategiko arreta zerbitzua... Makina bat gai izan dituzte hizpide korporazioko kideek galdera eta erreguetan.

Egoitzari buruz galdetu dute ELOP Elkarrekin Lasarte-Oria Puede eta EH Bildu alderdiek, Atsobakarrek beharginek azken asteetan egin dituzten protestekin arduratuta. Beraien ustez, Udal Gobernuak neurriak hartu behar ditu, nahiz eta gaia bere eskumenekoa ez izan. Lourdes Acevedo zinegotzi sozialistak



Partehartze batzordeburu Nagore Duranek eman du egitasmoaren berri. TXINTXARRI

erantzun du, esanez hartzen dituela neurriak: "Astero desinfektatzen du egoitza udalak kontratatutako enpresa batek".

Gai gehiago

EAJ-PNV alderdiaren bozeramaile Jon Antxordokik uste du "beharrezkoa" dela zehaztea udalbatzar saioak nola egingo diren baldin eta zinegotziek euren etxeetatik lan egin behar badute. Udaleko langileen gaia dagokion batzordean hitz egin behar dela ere adierazi du "Jakín dugu Gizarte Zerbitzuak saileko teknikari batek lana utzi behar duela; kezkatu egiten gaitu, lan-karga handia duelako alor horrek gaur gaurkoz".

Acevedok aipatu du alkateak hitz egin duela teknikariarekin eta hasi direla udalbatzarrena baloratzen. Lanuztearen inguruan, esan du "hilabetea amaitu aurretik" egingo dutela batzordea.

EH Bilduk hizpide izan ditu Lasarte-Oriako Osasun Zentroa eta udal zerbitzu zein instalazioak. Herritarren zenbait kexa jaso ditu alderdiak. Anbulategiko arreta zerbitzuaren "kalitate jaitiera" edota udal instalazioetan tramiteak egitea "zaila" dela aipatu dute Jon Martin eta Uxue Loinaz zinegotziek. "Udala aztertzen ari da alde aurreko hitzorduak progresiboki kentzea", erantzun du Acevedok.



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

Teknologia

"Zein ederki, momentu batean konektatuta zaudete!". Nire amak ez dauka *smartphone*-rik, ez dauka ez Whatsapp ezta emailik ere. Duela 15 urteko zorion txartel bati argazkia atera eta unibertsitate garaiko lagunei bidaltzea miragarria da berarentzat. "Bai, oso erabilgarria da, ama, baina egun guztia sakelakoaren tonoren bueltan pasatzen dugu".

Teknologia urte gutxitan bizitza goitik behera aldatu digu. Esaterako, hain zuzen, unibertsitate aroan, zenbat buelta ematen genituen idazkaritzatik beti paperen bat falta zelako. Orain, une batean, dokumentuari argazki bat atera eta klik batean bidaltzen duzu. Beste zerbait falta bada, berriz, (beti gertatzen da) amen batean arazoa konponduta.

Eta pandemian zer esanik ez: lanerako edo ikasteko emaila eta online plataformak; pelikula bat ikusteko, Netflix; lagunekin pote bat hartzeko bideo deia. Kontsulta birtuala, gimnasio birtuala, museo birtuala... Teknologiarik gabe ez zen posible izango.

Aitzitik, belaunaldien arteko arrakala handituz doa garapenarekin. Berrogeialdian, adibidez, faltan bota dut gurasoek *smartphone*-rik ez edukitzea. Esan gabe doa guraso edo amona-aitonak zaharren egoitzetan dituztenak, aurrez aurreko bisitarik ez, eta bisita birtualik gabe geratuko ziren asko, sakelakorik ez.

Teknologia bizitza erraztearekin batera, haren morroi ere egin gaitu, ordea. Nire amak norbaiti opari bat egin nahi badio, dendara joaten da erostera; azken orduko albisteak entzun nahi baditu, irratia pizten du; kirola egin nahi badu, paseo bat ematera irteten da. Gauzak astiroago egingo ditu, baina lasaia bizi da, askeago. Ez dizue inbidia apur bat ematen?

Lasarte-Orian hamabi kasu atzeman dituzte asteazkenean

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak urriaren 14an eguneratutako datu epidemiologikoak izan dira Txintxarri aldizkariak kontsultatu dituen azkenak edizioa itxi aurretik. Horien arabera, herrian hamabi kutsatze detektatu dituzte asteazkenean. Hilabetea hasi zenetik 73 positibo atzeman dituzte, eguneko bost pasatxo, batez beste.

Beterri-Buruntza eskualdeko gainontzeko udalerrietan ere atzeman dituzte kutsatzeak: Andoainen 11, Hernanin zazpi, Urnietan lau, Astigarragan hiru eta Usurbilen bat.

EAEko hiru lurraldeetan 679 positibo detektatu dituzte asteazkenean. Horietatik gehienak Gipuzkoan, 303. 10.890 PCR proba egin dituzte; %6,2 izan dira positiboak. Ospitaleetan 273 pertsona ingesatuta daude, horietatik 51 ZIU unitateetan.

ELKARREKIN
euskara bizi, erabili

Astindu mingaina!

IZEN EMATEA: URRIAREN 30ERA BITARTE

Ttakun Kultur Elkartea | LASARTE-ORIA
kultura@ttakun.eus 943 37 14 48 • 695 785 389

Antolatzaileak:

Babeslea:

NOAOA
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

943 37 36 13

Ordutegia: **09:30-13:30**

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da
info@noaoa.eus

Solaskide programan parte hartzeko aukera

Ttakun Kultur Elkartek, Muntteri AEK-k eta Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako Solaskide programan izena emateko azken eguna urriaren 30a izango da. Informazio gehiago nahi duenak, 'kultura@ttakun.eus' helbidera idatzi dezake

Txintxarri

Urte mordoa dira lasarte-oriatarrek Solaskide programan parte hartzen dutela. Euskaraz hitz egiteko ohitura duten herritarrak eta mintzapraktika egin nahi dutenak biltzeko programa da Solaskide. Horrela, euskara hobetzeko, gehiagotan erabiltzeko, euskaraz bizitzeko, normalizazioaren alde egiteko, ingurune euskalduna sortzeko, indartzeko eta zabaltzeko... Parte-hartzaile bakoitzak bere helburuen arabera parte hartzen du egitasmoan, baina denek ala denek, helburu bakar batekin: euskaraz hauspotzea.

Horretarako, talde txikitik elkartu eta kafe baten aitzakiarekin, edota herrian barrena paseotxo atsegin bat emanaz, euskaraz komunikatzeko hitzorduak zehazten dituzte. Ordubete inguruko saioak izaten dira, beti, noski, egunerokoan euskaraz hitz egiten dutenak –Bidelagunak– eta euskaraz egiteko hainbesteko ohiturarik ez dutenak, –Bidelariak– elkartuz.

Parte hartzeko baldintza

Baldintza bakar bat baino ez dute bete behar programan parte hartu nahi duten



Herriko solaskide talde bat, iazko saio batean. TXINTXARRI

solaskideek: euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila bat edukitzea. Hori ziurtatuta, eskuorriak bete behar dituzte, eta Ttakun Kultur Elkarteko postontzian entregatu. Eskuorri horiek, herriko puntu ezberdinetan jarri dituzte antolatzaileek herritarren eskura, hala nola, udal euskaltegia, Muntteri AEKn, Manuel Lekuona kultur etxean eta udaleko Euskara zerbitzuan.

Ttakun Kultur Elkarteko Solaskide programaren

dinamizatzaile Xabier Matxainek, herritarrak animatu ditu egitasmoan parte hartzera. Garrantzitsua ikusten du, kasu honetan, euskararen erabileran hutsune dutenak jarraikortasuna emateak, hizkuntzaren erabilerak galdu ez dadin: "Gauzak egiteari uzten diogunean, hutsune bat sortzen da eta horri, berritzaile ere eusten ez badiogu, galtzeko arriskua dago. Hortaz, ezinbestekoa da, niretzat, euskararen bizitzarako hizkuntza praktikatu eta erabiltzea".



Gazteklubeko parte hartzaileak, izotz parkera egindako irteera batean. TXINTXARRI

Gazteklubak ikasturte berriari ekingo dio urriaren 23an

Izena eman edota informazio gehiago eskatzeko 'https://labur.eus/gzk2021' helbidea jarri dute interesatuen eskura

Txintxarri

Irailean eta urrian, Gazteklubeko saioei itxura ematen aritu dira Ttakun Kultur Elkarteko arduradunak, eta lan horiek amaituta, datorren astean ekingo diote ikasturte berriari; urriaren 23an izango da lehen saioa. Programa hori LH3-4-5 eta 6ko haurrei zuzenduta dago, eta doakoa da.

Aisialdiko jardueretan oinarritzen da, eta helburu nagusia adin horietako haurren artean euskararen erabilera sustatzea da, aisialdiaren izaera ludikoa eta urteetan zehar bereganatzen joan den gero eta garrantzia handiagoa aintzat hartuz.

Aisialdiaren garrantzia

Gazteklubeko arduradunak azaldu dutenez, aisialdia "oso garrantzitsua" da pertsonen garapen-aukerak zabaltzeko, eta

hori lortzeko, programazio egokia diseinatu du kultur elkarteak, "Gure erronka nagusia ongizatea eta gogobetetasuna sortuko dituen eta, aldi berean, haurrei hainbat arlotako helburuak lortzeko aukera emango dien programazioa diseinatzea izango da; horrela, arrakastaren eta gozatze gaitasunaren pertzepzioa handitzea. Azken batean, hazkunde pertsonalerako aukera oso garrantzitsua da".

COVID-19ak eragindako egoera dela-eta, ekintzak taldeka egingo dituztela iragarri dute, beti ere, indarrean dauden osasun-neurri guztiak errespetatuz. 2012tik 2009ra bitartean jaiotako haurrek ostiraletako jardueretan parte hartu ahal izango dute, 17:30etik 19:30era, eta hilean behin larunbatetan ere antolatuko dira. Izen-ematearen arabera espazio desberdinak erabiliko dira.

Lasarte-Oria aldizkariarekin hitzarmena berretsi du udalak

Abenduan kaleratuko duten urteko bigarren zenbakiarekin lanean ari dira dagoeneko

Txintxarri

Lasarte-Oria aldizkaria kultur elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak lankidetzan hitzarmena berretsi dute. Herriari buruzko gai historikoak lantzen ditu aldizkariak. Horren bitartez,

udalak Lasarte-Oria aldizkaria editatzeko 2.448 euro jasoko ditu elkarteak, eta jakitera eman dutenez, aldizkariaren aurrekontua 4.080 eurokoa da.

Agustin Valdivia alkateak udalak aldizkari horrekin duen

konpromisoa azpimarratu du eta Lasarte-Oria aldizkariak urtean bi zenbaki argitaratuko dituela zehaztu; bakoitza, 1.450 alekoa.

Ekainean iritsi zen herritarren etxeetara lehen zenbakia eta abenduan argitaratuko dute bigarrena. Lasarte-Oria aldizkaria elkarteko kideek azaldu dute urte amaierako zenbakiarekin lanean ari da dagoeneko. Urri hasieran sinatu dute hitzarmena bi entitateek.



Udal ordezkariak eta Lasarte-Oria aldizkariak hitzarmena sinatzen. TXINTXARRI

Ikasturte berriari ekingo dio Irakurle Txokoak

Uxue Alberdik dinamizatuta, saio presentzialei ekingo diete urriaren 22an, ostegunez, 18:30ean, Udal Euskaltegiko erabilera anitzeko aretoan. Miren Amuriza gonbidatuko dute; idazle bizkaitarrak ondutako 'Basa' eleberria hizpide izango dute. "Elkartzeko beharra genuen"

Txintxarri

Urriaren 22an ekingo dio ikasturte literario berriari Irakurle Txokoak. Azken urteetan bezala, Uxue Alberdi idazleak dinamizatuko du taldea. Ez ordenagailuko pantailen bitartez, kideei aurrez aurre begiratzuz baizik, urritik abendura bitarteko saioak behintzat presentzialak izango direlako. "Horretarako beharra genuen eta pozik gaude, behar diren neurriak hartuta, elkarrekin egongo garelako", adierazi dute Irakurle Txokoko kideek. "Elkargune bat da guretzat, elkarrekin aurrez aurre egoteko gune bat". Udal Euskaltegiko erabilera anitzeko



Irakurle Txokoaren iazko saioetako bat, Aintzane Usandizaga herritararekin. TXINTXARRI

aretoa izango da gune hori hemendik eta urtea amaitu bitartean gutxienez. Hilean behin elkartuko dira, ostegunetan, 18:30etik aurrera. Hiru saio antolatu dituzte tarte horretan.

Lehenengoa, arestian esan bezala, datorren asteko ostegunean, urriak 22. 18:30ean elkartuko dira, eta Miren Amurizak ondutako *Basa* eleberria jorratuko dute. Idazlea saiora etorriko da.

Errifak eta bertso afaria

Irakurle Txokoak jakinarazi du errifak salduko dituela ikasturte honetan, 2 euroan, egitaraua osatzeko finantzazioa lortzeko. Izan ere, COVID-19a dela eta, ezin izan dute urteroko txozna jarri sanpedroetan. Ogitartekoak saldu ohi dituzte bertan. Saria "berezia" izango dela aurreratu dute: Txakur Gorriak propio Irakurle Txokoarentzat egindako artelan segida bateko lau lamina, hain justu. Zozketa abenduaren 10eko saioan egingo dute, eta une horretan bertan jakinaraziko dituzte lau zenbaki sarituak.

Ikasturtean zehar ekintza gehiago antolatzen ditu Irakurle Txokoak. Otsail partean, esate

baterako, bertso afari literarioa. Bertiko formatuan antolatzeko arazoak izango dituztela aurreikusten dute egitasmoko kideek. Zehaztu dute ekitaldia "beste formatu batean" egiteko aukerak aztertzen ari direla, eta "ahalegin guztiak" egingo dituztela bertso afariari jarraipena emateko. Aurrerago jakinaraziko dute zer eta noiz egingo duten.

Euskadi saria Alberdientzat

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoa dinamizatzen du Uxue Alberdik. Euskadi Literatura sarietako bat irabazi du idazle elgoibartarrak, saiakera saria, *Kontrako eztarritik* libururengatik. Lan horretan emakume bertsolarien testigantzak jaso ditu Alberdik, "garai diferenteetan plazaraturikoenak", ahalik eta adin-tarte zabalena barnebiltze aldera. Bertsolariek kontatutakoan oinarrituta, euren jarduna mugatzen duten hainbat mekanismo zerrendatzen ditu Alberdik liburuan: itxuragatik epaituak izatea; akatsa barneratzea; ikusezintasuna eta gizonen arteko aliantzak; eta gutxiespena, besteak beste.

"Irakurle Txokoan egotea plazer handia da niretzat"

MIREN AMURIZA PLAZA IDAZLEA ETA BERTSOLARIA

Irakurle Txokoak Miren Amuriza Plaza (Berriz, Bizkaia, 1990) idazlea gonbidatuko du urriaren 22ko saiora. 2019ko apirilean 'Basa' eleberria ondu zuen idazle bizkaitarrak; nobela hori hizpide izango dute datorren astean, Udal Euskaltegiko erabilera anitzeko aretoan.

"Plaza kuttuna" du Lasarte-Oria Amurizak. Behin baino gehiagotan etorri izan da bertsoan egitera. Urriaren 22an ez da oholtza batera igoko, ordea; Irakurle Txokoko kideekin eseri, eta 'Basa' eleberriaz solastuko da. Bitartekari lanak Uxue Alberdik egingo ditu. "Niretzat plazer handia da irakurleez gain Uxue ere hor egotea, konfiantza handia daukagu eta askotan hitz egin dugu liburuari buruz eta literaturaren inguruan ere bai, orokorrean".

Lehenago ere joan izan da Amuriza irakurle txokoetara; "oso sentsazio onak" izan ditu. "Norberak idatzitako liburua beste



TXINTXARRI

pertsona batzuekin partekatzeak beste gorputz bat ematen dio". Jaso dituen iritziak "onak" izan direla gogoratu du. "Eleberria idazten hasi nintzenean, nire kezka nagusietako bat zen ea irakurleek identifikatuko ote zituzten kontatzen dudana istorioa eta protagonista, eta jaso ditut iritziak, 'Nire ama, amona, izeba...gogorazten diit', eta antzeko batzuk".

Sabina Gojenola da 'Basa' eleberriko protagonista. "Baserriko emakume bat da, 80 urtekoa, oso zaildua eta temperamentu handikoa,

hainbat motibo direla medio egoera oso-oso muturreko batera iritsi dena. Basandre bat ez, andre basa bat baizik". Idazleak irakurleari planteatzen dio eta zergatik den Sabina den bezalakoa, zer dagoen bere izateko moduaren atzean.

Pertsonaia erretratatzeko

"Baserriko eta adineko emakumeei buruz asko hitz egin eta idatzi izan da, baina Sabinaren temperamentua bezalakoa daukan pertsonaia nik behintzat ez nuen aurkitzen, eta hori egin nahi nuen, izaera hori daukan pertsona bat erretratatu", azaldu du idazle bizkaitarrak.

Irakurleia istoriora iristen denean ailegatzeko da "tentsioa goi-goian" dagoen une batera, Amurizak azaldu duenez. "Dena abiadura bizian mugitzen hasten da". Idazleak deskribatzen du "muturreko" egoera bat, "leherketa baten kontaketa". Sabinaren istorioa kontatzeko estiloak horrekin bat egin behar

zuela erabaki zuen Amurizak.

"Laburra, zuzena, traila handikoa". Sabina Gojenola zen 'Basa' eleberriaren ardatza "hasiera-hasieratik", baina idazte prozesuan zehar aldatu egin zuen idazleak pertsonaiari begiratzeko modua. "Adineko emakume bat ikusten nuen hasieran, zaurgarritasun egoera batean dagoena, baina berehala konturatu nintzen ez nuela enfoka hori nahi; bere temperamentuari ez nion justizia egiten".

Itxialdian zehar jarraitu zion idazteari, baina ez helduentzat, umeentzat baizik. Azaro-abenduan liburutxo bat argitaratuko du; Eider Eibarrek egin ditu ilustrazioak. "Beste buroaldi eta gorputzaldi batekin idatzi nuen hori, beste tonu eta kolore batzuekin, eta ongi pasatu nuen", gogoratu du. "Denborak eta gorputzak uzten didaten neurrian, sortzen eta idazten jarraituko dut, bakarka, taldean...".

Abendura bitarteko saioak

Irakurle Txokoa ostegun arratsaldeetan elkartzen hasiko da, hilabetean behin, urritik abendura. Saio hauek programatu dituzte:

Urriaren 22an:

- Miren Amurizaren 'Basa' eleberria jorratuko dute. Idazlea saio horretara etorriko da.

Azaroaren 19an:

- Irene Solak idatzitako 'Nik kantatu eta dantza egiten du mendiak' eleberria hizpide izango dute.

Abenduaren 10ean:

- Maddi Ane Txoperenak ondutako 'Ene baitan bizi da' nobela landuko dute. Idazlea saio horretara etorriko da.

Jaiotzetik, euskaraz

Haurrak jaio eta lehen hilabeteetatik euskal hiztun osatuenak izatea du helburua 'GurasoLeku' programak. Familiak, haurrak eta eskolak ditu ardatz egitasmoak

0 eta 2 urte arteko haurren gurasoei ere zuzenduko zaie 'GurasoLeku' programa

Andre Joakina haurreskola *GurasoLandiaren* parte bihurtu da aurren, *GurasoLekuko* mahaiaren parte ere bihurtuz. Parte hartze horrek 0-2 adin tartean eragiteko aukerak handitzeaz gain, gurasoengana zuzenean heltzeko bideak ere jartzen ditu: "Adin tarte horretako guraso guztiak Haurreskolan egon ez arren, jaioberrien eta 2 urte arteko gurasoen artean dagoen tartean eragiteko aukera ematen digu Andre Joakinak". nabarmendu du udalak.

Adin tarte horretako hainbat gurasorekin bildu ostean, zailtasunak ikusten zituzten maiztasun zehatz batez programa batean parte hartzeko, eta sistema malguago bat eskatu zuten, *GurasoLandiaren* diseinua aldaketa batzuekin dator aurren. Eskaera horri erantzunez, hiru talde sortu eta bakoitzarekin hiru saio egin beharrean, tailer formatuko zortzi saio egitea proposatu zitzaizen eta begi onez ikusi dute. Azaroan, haurraren loa landuko dute lehen tailerrean.



Baliabideak herriko familiengan jarri eta euskaraz hezteko helburu duen egitasmoaren alde, elkarlanean

Lasarte-Oriako Euskara Batzordeak 2015-2016 ikasturtean jarri zuen martxan proiektua, hainbat eragilerekin batera. Orduz geroztik, urtero parte hartzen dute Lasarte-Oriako haurrek *GurasoLekun*. Ikasturte berrian ere, horietan parte hartzera animatu nahi ditu Jon Antxordoki Euskara Batzordeko lehendakariak: "Espazioak eta tresnak jartzen ditugu familien eskura, ikastetxeekin elkarlanean, seme-alabekin euskaraz hitz egin dezaten". Hezkuntza, hizkuntza transmititzeko "makulu sendoa" dela azpimarratu du Antxordokik, baina inguruak ere "garrantzi handia" duela nabarmendu du.

Ttakin Kultur Elkartea da *GurasoLekurekin* lanean ari den eragileetako bat eta bertako lehendakari Mari Karmen Ormazabalek ere egitasmoarekin bat egitera animatu ditu herriko familiak: "Herriko guraso orok du lekua *GurasoLekun*". Programaren hiru atal nagusiren inguruan ere mintzatu da. *GurasoLagun* da horietako bat: "Euskaraz aritzeko gaitasuna duen

pertsona bat ohitura ez duen batekin elkartzen da, azken horrek hitz egiteko mekanismoak har ditzan". *GurasoTegi da beste atal bat*: "Gurasoentzako euskara eskolak eskaintzen dituzte, komunikatzeko oinarritzko gaitasunak lantzeko". Eta, hirugarrena, *GurasoLandia*: "Beste bi programetako gurasoak elkartzen dira, aisiako jarduerak egiteko haurrekin. Helburuak dira familian tarte atsegin bat igarotzea, eta euskaraz arituz gozatzea".



Hauek dira elkarrekin burutuko ditugun ekintzak:

Azaroan: **Haurraren loa**

Abenduan: **"Baby led weaning" (elikadura)**

Urtarrilean: **Aromaterapia eta masaje tailerra**

Otsailean: **Lau hanketan eta oinez ibiltzen, erakutsi ala ikasi?**

Martxoan: **Yoga jaioberri eta gurasoentzat**

Apirilean: **Jaioberrientzako lehen sorospinak**

Maiatzean: **Umeen meriendak**

Ekainean: **Adimen emozionala, emozioen kudeaketa**



Gurassoleku

GurasoLagun

"Euskaraz bizi ahal izateko" animatu zen Anabel Morales *GurasoLagun* egitasmoan parte hartzera. Hiru urteko alabarekin ezin izan du orain gutxira arte euskaraz komunikatu, eta horretarako "oso lagungarria" egin zaio programa: "Orain, den-dena ezin dut euskaraz hitz egin nire seme-alabekin, baina asko aldatu dira gure hizkuntza-ohiturak; euskaraz lehen baino gehiago egiten

dugu". Duela zazpi urte etorri zen Lasarte-Oriara Morales, Kataluniatik, eta ezin zuen herritarrekin euskaraz komunikatu, baina, gaur egun, "pixkanaka-pixkanaka" hori ere lortzen ari dela azpimarratu du. Alabaren irakaslearekin ere euskaraz hitz egiten du.

Ikasturte berrian egitasmoan parte hartuko duen galdetuta, zalantzarik gabe baiezkoa erantzun du: "Euskara maila

asko hobetu dut, eta bide horretan jarraitu nahi dut".



Anabel Morales



Begoña Delgado

Semearen ikastetxearen bitartez jakin zuen Begoña Delgadok *GurasoTegi* egitasmoaren berri, eta "oso esperientzia ona" izan da

berarentzat eta baita bere semearentzat ere. Hiru urtez aritu da *GurasoLekun* parte hartzen, eta, aurten ere errepikatu egingo du: "Jendea ezagutu eta euskara praktikatzeko egitasmo aproposa da".

Lasarte-Orian jaioa da Delgado, baina gurasoak ez dira euskaldunak, eta bere

egunerokoa erdaraz izan da ia beti, semea jaio arte: "Semeak euskaraz hazi behar du, eta hori bermatzeko egin dut bat egitasmoarekin". Semearekin euskaraz harremantzen da D elgado: "Euskarazko abestiak, ikus-entzunezkoak eta jolasak lantzeko ohitura hartu dugu eta etxean ere horri eusten diogu".



GurasoTegi

GurasoLandia

Egunerokoan, euskaraz hitz egiten dute Maddalen Reciok eta Victor Dominguezek Nora alabarekin. Hauek ere alabaren ikastetxearen bidez jakin zuten *GurasoLandia* egitasmoaren berri eta ez zuten zalantzarik izan izena ematerako orduan: "Bertan jaso genuen eskuorria, eta interesgarria iruditu zitzaigunez, izena ematea erabaki genuen". Ekintza ezberdinak eginez eta haur

ezberdinekin harremantzeko bat egiten dute egitasmoarekin. beti ere euskara ardatz hartuta, eta esperientzia "oso ona" izan da beraientzako, baina, batez ere Nora alabarentzako: "Egunerokoan euskaraz hitz egiten dugu gure alabarekin, hortaz, gure hizkuntza ohituretan ez du aldaketa handirik eragin, baina garrantzitsua da Norak, bere ingurukoekin euskaraz egitea, txikitatik. Oso gustura

ibili da, euskaraz abestuz eta jolastuz".

Errepikatzeko asmoa dutela azaldu du Recio: "Parkean egiten ez diren beste ekintzetan parte hartzeko aukera izan dugu, eta euskaraz".

Ikasturte berrian ere, jaso dute eskuorria ikastetxean eta dagoeneko izena ere eman dute eta gogoia erakutsi dute berriro ere egitasmoarekin hasteko.



Victor Dominguez eta Maddalen Recio

- Hauek dira elkarrekin burutuko ditugun ekintzak:

Hauek dira elkarrekin burutuko ditugun ekintzak:				
	HH2	HH3	HH4	HH5
Abenduan:	Sehaska kantan	Istoriak asmatu	Kirola	Natura-jolasak
Urtarrilean:	Ipuinak, maitasuna	Musika egin	Antzerkia	Birziklapena
Otsailean:	Masajea	Mozorroak sortu	Dantza	Sukaldaritza
Martxoan:	Ipuinak, koloreak	Artelanak egin	Plastika	Natura-artelana
Apirilean:	Ipuinak, animaliak	Jostailuak asmatu	Gorputz adierazpena	Biodantza
Azken saioa:	Ekintza berezia	Ekintza berezia	Ekintza berezia	Ekintza berezia





LASARTE-ORIAN EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

AURTENGO BERRIKUNTZA,

entitateek parte har dezaketela da, edozein erakunde, enpresa, denda, zein elkartek aukera izan du Euskaraldian izena emateko, behintzat arigune bat osatuz.

ZER DA ARIGUNE BAT?

Euskaraz lasai aritzeko gunea da. Euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen da uneoro arigunean. Bi eratakoak izan daitezke ariguneak:

Barne arigunea: entitate baten baitan ohiko dinamika duten kideek (lankideek...) osatzen duten taldeak dira eta modu kolektibo batean euren arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko aurrera pausoak ematea adostu dute.

Kanpo arigunea: entitatean herritarrekiko harreman-espazioetan dauden pertsonak (dendariak...) osatzen dute eta beraiekin herritarrek uneoro euskaraz artatuak izateko bermea izango dute.

PARTE HARTUKO DUTEN LASARTE-ORIAKO ENTITATE BATZUEN TESTIGANTZAK

CARRETERO LIBURU-DENDA

Aurtengo Euskaraldian entitateek ere parte hartu zezaketela jakin bezain laster izena eman zuen Sasoeta auzoko San Martzial plazan dagoen Carretero liburu-dendak. Julen Izagirre usurbildarrak artatzen ditu egunero-egunero atetik sartzen diren bezeroak, duela 35 urtetik. Hizkuntza-ohiturak astintzeko ariketa honetan hondar aletxo jarri nahi du.



TELESONIC

"Telesonic, egun on". Oriako Zirkuitu ibilbideko poligonoetan dagoen Telesonic enpresara deitzen dutenekin lehen hitza euskaraz egiten dute langileek. Lantokiko giroa, oro har, euskalduna dela adierazi du Maider Artolak. Oinarri batzuk honezkero finkatuta izanda ere, Euskaraldian parte hartzea erabaki du Telesonic enpresak, zenbait arigune sortuz, euskararen erabilerari "beste bultzadaxo bat" emateko.

HERRIKO
ENTITATEAK:

ACHA-ORBEA FARMAZIA | MUNTTERIAEK | ALDIKA PRODUCTOS SELECTOS | ALDIKAR AUTOAK | ANDREJOAKINAEN
ARKITEKTURA | BURUNTZALDEA IKT | BURUNZPE GURASO ELKARTEA | CAIXABANK | CARRETERO LIBURUDENDA | CEI SE
FACTORY LOGISTICA | ANA GIZONEZKOEN ILEAPAINDEGIA | IBAIONDO FISIOTERAPIA ZENTROA | INTZA K.E. | JEMA ENER
GURASOEN ELKARTEA | LANDABERRI IKASTOLA | LASARTE ALDAZ HORTZ KLINIKA | IRAKURLE TXOKOA | UDAL EUSKALTEGI
MAYA LENTZERIA | MULTIOPTICAS | NOAOA BIDAIK | OKELA HARATEGIA | ORBELA EKO-DENDA | ORIARTE BHI | ORU
SASOETA-ZUMABURU HI | SETALDE GROUP | SORGIN JAIK | TELESONIC | TTAKUN KULTUR ELKARTEA | TTIRRIKI TTARRAK

XUMELA KORUA

"Arigune natural bat gara gu, 2006tik, jaio ginenetik, euskaraz jardutea izan baita gure helburu nagusia", adierazi du Xumela koruko kide Joxe Mari Agirretxek. Euskara sustatzen lanean jarraitzeko "abagune ederra" da Euskaraldia koruarentzat. 70 bat kide aritzen dira kantuan gaur egun, 'ahobizi' edo 'belarriprest' izan.



ACHA-ORBEA FARMAZIA

Acha-Orbea farmaziara hurbildu garenean, Hipodromo Etorbidea 6 zenbakira, bezero-ilara batekin topo egin dugu. Beti egon ohi dira farmaziak topera, eta bizitzen ari garen garaiotan, zer esanik ez. Acha-Orbeako langileek Euskaraldiaren berri izan eta berehala erabaki zuten izena ematea eta ariguneak sortzea. "Euskaraz arreta ematea lotzen dugu goxotasunarekin eta hurbiltasunarekin".



HHI-EPA LASARTE

Azaro erdialderako motorrak berotzen ari dira HHI-EPA zentroko irakasle eta ikasleak. Kontatu digutenez, zenbait arigune saretu dituzte. Urratsak egiten ari dira euskarak gero eta presentzia gehiago izan dezan euren jardunean; klaustroak eta formazio-saioak, esate baterako, hizkuntza horretan egiten dituzte. Zentroko Urteko Plangintza ontzen ari dira. Hizkuntzen atalean Euskaraldian egingo duten ariketa sartuko dute.



SETALDE GROUP

Marketing saileko Aitorrek eta Albak harrera egin diote Txintxarri-ri, Setalde Group enpresaren Oria etorbideko egoitzan. 50 parte-hartzaile inguru izango dituen bost barne-arigune eta kanpo-arigune bat saretu dituzte Euskaraldian parte hartzeko. Barne- zein kanpo-harremanetan euskaraz aritzea are gehiago sustatuko dute, eta bestelako urratsak ere egingo dituzte. Esate baterako, buletinak euskaraz bidaltzea.



IAENEA HAURRESKOLA | BANCO SABADELL | BANKOA | BBVA | BERASATEGI KAFEAK | BIKAIN DISEINU GRAFIKOA | BOROBIL
EI SERVICIO DE PREVENCION | DIGITAL MOBILES | DINBI BANDA BATUKADA TALDEA | EPA LASARTE | ERKETZ DANTZA TALDEA |
ENERGY | KUKUKA ANTZERKI ETA DANTZA ESKOLA | KUTXABANK | LABEGOXO | LABORAL KUTXA | LANDABERRI GARAIKOETXEA
LATEGIA | LASARTE-ORIAKO UDALA | BERRITZEGUNEA | TXISTULARIAK | MAITE ERKIZIA ILEAPAINDEGIA | RAKEL MASAJE ARETOA |
ORUE FARMAZIA | OSTADAR S.K.T. | PIKABEA ASEGURU ARTEKARITZA | RURAL KUTXA | SALTOGELA PSIKOMOTRIZITATEA |
RRAKA MUSIKA ESKOLA | URBISTONDO FARMAZIA | URRUZOLA MERTZERIA | XIRIMIRI ELKARTEA | XUMELA | ZABALETA AUZOLAN



Asier Pozo txirrindularia erlojuaren aurkako Gipuzkoako txapelketan lehian. BURUNTZAZPI TXIRRINDULARITZA ESKOLA

"Europako txapelketa esperientzia polita izan da"

ASIER POZO NOTARIO BURUNTZAZPI TXIRRINDULARITZA ESKOLAKO KIDEA

Errepidean zein pistan ongi moldatzen da Asier Pozo txirrindularia. Horren erakusle da bi hilabete hauetan Espainiako zein Europako txapelketetan lehiatu izana

Nerea Eizagirre

Futbolean eman zituen lehen pausoak Asier Pozo Notario (Lasarte-Oria, 2002) gazteak. Baina txirrindularitza probatu eta gustuko zuenez, pausoz pauso bere bidea egin du Buruntzazpi txirrindularitza eskolan. Garaipen ugari lortu ditu eta aurten Gipuzkoako pistako zein errepideko erlojuaren aurkako txapela jantzi ditu. Azken hilabetean batetik bestera ibili da errepide zein pistako Espainiako txapelketa eta pistako

Europako txapelketan parte hartzen. Urriaren 24an Legorretan jokatu den taldekako erlojupeko txapelketan jantziko du Buruntzazpiko maillota azkeneko aldiz.

Txapelketaz txapelketa ibili zara azken hilabetean. Azkena Europako txapelketa izan da. Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso esperientzia ona izan da. Estatuko selekzioarekin horrelako lehiaketa garrantzitsu batera joan ahal izatea eta hain maila handia duten beste

txirrindulariekin lehiatu ahal izatea esperientzia polita da.

Pistako denboraldia urtarrilean amaitu zenuen, Gipuzkoako txapeldun izan osten. Bai Espainiako txapelketa, baita Europako txapelketa ere apirilean eta uztaillean ziren jokatzekoak, hurrenez hurren. Baina iraila eta urrian jokatu dira. Nola prestatu dituzu probak?

Ez da ohiko prestaketa izan. Ezberdina izan da. Tafallako Espainiako txapelketa prestatzeko Euskadiko selekzioarekin entrenamendu batzuk izan

genituen Belodromoko pistan eta Europako txapelketa prestatzeko egonaldi pare bat egin ditugu Valentzian.

Gutxi egon naiz belodromoan eta ezin izan ditut ongi prestatu probak. Hala ere, Euskadikoarekin domina lortu genuen.

Zortzigarren postua lortu zenuten Europako txapelketan. Espero al zenuten?

Bai, espero genuen. Maila handia dago horrelako txapelketa batean eta lehen postuetan egotea zaila da.

Espainiako txapelketan, berriz, zilarrezko domina eskuratu zenuten. Sailkapenetan lehen denbora lortu zenuten, baina ezin izan zenuten Valentziako Erkidegoko taldea garaitu finalean.

Pena handia da. Urrezko domina eskura genuen eta ezin izan genuen Valentziaren aurka. Sentsazioak ere ez ziren oso onak izan.

Bi txapelketetan taldekako jazarpen proban parte hartu duzu. Zure probarik gogokoena da?

Pistan gehien gustuko dudana probetako bat da eta hobekien moldatzen naizena. Indarra beharrez gain, alde tekniko ere badu eta.

Errepideari dagokionez, aurten ez da denboraldi erraza izan.

Itxialdia baino lehen hiru lasterketa izan genituen eta gero etena etorri zen. Uztaillean hasi ginen berriro. Denboraldi motzagoa izan da, lasterketa gutxiagorekin eta data aldaketak ere izan dira.

Erlojuaren aurkako Gipuzkoako txapelketa izan zen hitzordu horietako bat. Garaile izan zinen segundo bateko tartearekin.

Bai, garaipen estua izan zen. Lehen hirurak hiru segundotan iritsi ginen.

Ez nuen espero irabaztea, baina banekien ongi zetorkidan proba zela eta ongi atera zen. Irabazi nuen.

Txapelketak data aldaketa eta ibilbide aldaketa izan zuen; ez zen erraza izango prestatzea.

Nik berez proba hori ez nuen egin behar ez zegoelako Gipuzkoako sailkapeneko proben artean. Baina parte hartuko nuela baieztatu zidatenean, bagenekien Alegian izango zela eta aurreko astean proba prestatzeko aukera izan nuen. Horregatik ibilbidea ez zen oztopo izan.

Errepideko Espainiako txapelketan ere lehiatu zara aurten Euskadiko selekzioarekin.

130 kilometro izan ziren. Ez zen luzea egin, ez baitzegoen mendate gogorrik. Nire taldekideak eta ni txapelketa buru egon ahal izan ginen. Ongi joan zen.

Esperientzia ere ona izan zen. Espainia mailan primerako txirrindulariak daude eta euren aurka lehiatzea sona ematen dizu.

Hilabete honetan, junior mailako azken probak jokatu dituzu eta hurrengo urtean 23 urtez azpiko mailan lehiatuko zara. Taldez aldatuko zara, beraz...

Erlojuaren aurkako taldekako Gipuzkoako txapelketa izango da nire azken proba junior bezala eta hurrengo urtean, taldez aldatuko dut. Buruntzazpi utzi eta Debabarrena taldean hasiko naiz lehian.

23 urtez azpikotik profesioaletara jauzia eman nahiko zenuke?

Profesional mailara iristea gustatuko litzaidake, baina oraintxe unibertsitatean hasi naiz eta ea nola doan guztia. Ez dakit esfortzu handia egin beharko dudana biak bateratzeko.

Baina nire asmoa txirrindularitzan jarraitzea da eta ahal bada profesional mailara iristea.

Pista eta errepidea uztartzen saiatuko zara?

Bai, pista eta errepidean jarraitzeko asmoa dut. Bietan moldatzen naiz ongi eta biekin jarraituko dut.

Profesional mailara iritsiz gero, errepide egingo nuke nagusiki. Baina aukera izango banu, pista ere egingo nuke.

Pistako teknika baliagarria da errepideko lasterketetarako?

Bai, pistako erritmoa zorrotza da eta errepidean ongi dator abiadura hori izatea. Pistako esprintak gainera, errepidekoak baino azkarragoak dira eta horrek zirrara sortzen du.

Gainera, neguan errepideko lasterketarik egon ezean, ongi dator pista egitea forma eta teknika mantentzeko.

Animatuko al zenituzke gaztetxoak txirrindularitza probatzera?

Bai, noski. Ni futbolean hasi nintzen, baina futbolean aritzeko jende asko zegoen; txirrindularitzan gutxi batzuk. Probatu nuen, gustuko izan nuen. Horregatik, gaztetxoek zein kirol erabakitzeo dudetan badaude, kirol ezberdinak probatzera eta batez ere, txirrindularitza probatzera animatu nahiko nituzke.



Gorengo Erregional taldeko zenbait jokalar, Axularren aurkako lagunartekoan. TXEMA VALLES

Jolasteko gogotsu daude Ostadar SKTko taldeak

2020-2021 denboraldia hasiko da asteburuan Ostadar SKTko lau talderentzat. Emakumezkoen Ohorezko Erregional eta Kadeteen Ohorezko taldeek lehen norgehiagokak jokatu dituzte; Gorengo Erregional eta Jubenilen Ohorezko taldeek, berriz, atsedena dute

Txintxarri

Futboleko baloia Michelingo Kirol Guneko zelaian biraka hasiko da ofizialki Emakumezkoen Ohorezko Erregional mailako partidari, larunbatean.

Pixkanaka-pixkanaka normaltasunera iristeko pausoak ematen ari da futbol ez profesionala. Denboraldia martxan jarriko da eta Ostadar SKTko lau futbol taldek Ligari hasiera emango diote, horietako bik atsedena izango dute lehen jardunaldian, Gorengo Erregional eta Jubenilen Ohorezko mailako taldeak. Hurrengo asteetan talde gehiagok ekingo diote lehiari. COVID-19ari aurre egiteko neurriez gain, lehiaketa sisteman aldaketak izango dituzte guztiek.

Iraila erdian aldean hasi zituzten entrenamenduak futbol taldeek eta etenaren ostean, gogotsu daude guztiak lehiari hasteko.

Alberto Callá Emakumeen Ohorezko Erregional taldeko entrenatzaileak onartu duen bezala, "eten luze honen ostean, bai jokalaria, baita nik ere,

gogoekin ekingo diogu lehiaketari".

Aurten jokalar aldaketa handirik ez da izan taldean. "Jokalar bat joan da eta hiru berri dauzkagu, gehienak kadete taldeetik igotakoak". Horrek denboraldi-aurrea eta entrenatzailearen lana erraztu ditu.

Tamalez ez dute entrenamenduetan ikasitakoa pratikan jartzeko aukera askorik izan, bi lagunarteko jokatu nahi zituzten Hernaniren aurka, baina bakarrik jokatu ahal izan dute, Hernaniko taldean COVID-19 kasu bat eman delako. Duela bi aste jokatuak partidari, talde urdin-beltza nagusi izan zen, 0-3.

Hala eta guztiz ere, denboraldi-aurrearen irakurketa ona egiten du Erregionalen entrenatzaileak eta aldaketaz beteta dagoen Liga

LEHEN POSTUETAN AMAITU NAHI DUTE LEHEN FASEA OSTADAR SKT-KO FUTBOL TALDEEK

honi aurre egiteko prest daudela onartu du, "beti ere, jokatzen bada".

COVID-19ak eragindako aldaketaz gain, aurtengo Ligak lehiaketa sistema aldatuko duela azaldu digu Callák. Bi fase ezberdinek osatuko dute denboraldia. "Lehen igoera fasea izango da eta bigarrena, jaitsiera".

Lehen fasean, joan eta etorriko liga bat jokatu dute bi multzotan banatuta. Ostean, bi multzoetako lehen hiru sailkatuek euren arteko ligaxka jokatu dute eta lehen sailkatuak igoera zuzena lortuko du. Bigarren taldeak, ordea, Araba eta Bizkaiko taldeen aurka jokatu beharko dute mailara igotzeko. Gainerako taldeek, Gipuzkoako kopa eta jaitsiera jokatu dute.

Beraz, helburua lehen sailkatuen artean egotea izango litzateke. "Aurreko denboraldian etena baino lehen taularen erdialdean geratu ginen, baina orain gorago egotea espero dugu".

Bide horretan Urnieta izango da lehen arerioa Emakumeen Ohorezko Erregional taldeak. Hitzordua larunbatean, 15:30ean

da, Michelingo Kirol gunean. "Ongi egitea espero dugu," adierazi du Callák

Denboraldi gogorra

Kadeteen Ohorezko mailako gazteak, berriz, Beasainen emango diote hasiera aurtengo Ligari.

Partida zaila iragarri du Koke Arzallus entrenatzaileak. "Zelai zaila da, gurea baino txikiagoa eta belar irregularar du. Gainera, taldea ere ona du, estutzen duen horietakoa. Borrokatu beharko dugu partida aurrera atera eta puntuak lortzeko".

"Ziurgabetasunez beteriko denboraldi-aurrea izan da. Neurriak jarraitu beharrik zaildu du eta denbora gutxi izan dugu taldea osatu eta indartzeko," azaldu digu kadete ohorezkoaren entrenatzaileak.

Lau lagunarteko jokatu dituzte, "partida zailak izan dira" eta taldeak oraindik teknikoki, taktikoki eta fisikoki asko egiteko duela azpimarratu du prestatzaileak. "Sei hilabete jokatu gabe egon ostean, lana dago egiteko. Hilabete batean prest egotea espero dugu. Lehen atsedene jardunaldia arte, ahal dugun bezala egingo dugu aurre".

Denboraldi gogorra iragarri du, COVID-19aren eraginarengatik. "Ez dakigu denboraldi osoa jokatu ahal izango dugun. Ziurgabetasun handia dago. Egoerara moldatu beharko gara. Gauzak egun batetik bestera aldatu ahal dira. Gazteei esaten diedan bezala, partida bakoitza final bat izango da".

Lehiaketa sistema ere aldatuko da. "Orain hiru multzo gara eta bitan banatu dute denboraldia: Igoera eta Gipuzkoako kopa", azaldu du. Gainera, bederatzi talde jaitsiko dira zuzenean.

Atsedena

Gorengo Erregionala eta Jubenilen Ohorezko mailako taldeek astebete itxaron beharko dute liga hasteko.

Denboraldi-aurrea "ezohikoa" izan dela azpimarratu du Raul Rodriguezek. "Kostata hasi ginen". Bi lagunarteko jolastu

COVID-19AK ETA SISTEMA ALDAKETAK ASTEBURUAN HASIKO DEN DENBORALDIA BALDINTZATUKO DUTE

ahal izan ditu taldeak Zarautz eta Axularren aurka. Azkena asteburu honetan eta Rodriguezen taldea 3-2 gailendu zen.

Taldearen bloke nagusia mantendu egin dau aurten. "Ez da ia jokalar aldaketarik izan. Bi jokalar itzuli dira taldera, Iñigo Gonzalez eta Andoni Sanchez, eta jubencil mailatik beste bat igo da, Yeray Mendibe".

Talde "ona" duela eta "gauza politak egin ahal izango dituela" azpimarratu du Gorengo Erregionalen prestatzaileak. Horri esker, goiko postuan egoteko aukerak dituztela aipatu du.

Baina horretarako, lan egin beharko dutela ere nabarmendu du: "Pausoz pauso aurre egin beharko diegu arerioei".

Atsedendia dute aste honetan. Ez datorkio ongi taldeari. "Hurrengo asteburuan, gure arerioak Ligako partida jokatu izango du", baina alde ona ere atera dio Gorengo Erregionalen entrenatzaileak. "Normalean bi multzo izaten dira gure Ligan; aurten, ordea, hiru multzoz osatua dago eta beste multzoko taldeak izango ditugu aurkari eta gutxi dakigu euren jokari buruz. Beraz, asteburu honetan talde horiek ikusteko aukera izango dute".

Lagunartekoa

Antxon Navarrok zuzentzen duen Jubenilen Ohorezko taldeak ere atsedena du. Baina lagunartekoa jokatzeko baliatuko du taldeak. "Euskal Ligako Jubencil mailako Zarautzen aurka jokatu dugu", jakitera eman du Ohorezko Jubenilen prestatzaileak.

Izan ere, taldeak ez du ohiko prestakuntza izan. "Ohikoa baino hilabete beranduago hasi gara lanean eta hori nabari da".

Talde polita duela aitortu du: "19 jokalar ditut eta horietatik azken urteko 13 jokalar ditut. Oinarria sendoa da beraz".

Horregatik, sailkapenean ahal den gorenean egoteko borrokatuko direla aitortu du.

Bestalde, aurten sistema aldaketa dela eta, denboraldi gogorra izango dela iragarri du. "Hiru multzo osatu dituzte eta multzo bakoitzeko lehenek igoera jokatu dute. Gainerakoek jaitsiera faseari aurre egin beharko diote. Ez dugu horretan pentsatu nahi, gu lehen postuetan egon nahi dugulako, baina bederatzi talde izango dira aurten mailaz jaitsiko direnak".

Kadete errendimenduko taldea, mailara egokitzen

Jonatan Reinoren taldeak Eskoriatzaren aurka galdu zuen Maialen Chourraut kiroldegian. Taldeko jokalarik gehienak mailaz igo dira eta helburua etorkizunerako prestatzea da. Aurten ezustekoren bat emateko gai direla uste du entrenatzaileak

Txintxarri

Ostadar Saskibaloia ataleko Kadete Errendimendu taldeak denboraldiko bigarren partida jokatu zuen Maialen Chourraut kiroldegian. Jonatan Reinoren taldeak Eskoriatza izan zuen aurrez aurre eta 34-67 galdu zuen.

Kadeteen entrenatzaileak azaldu duenez, "gure mailako taldea zen, taula erdikoa, baina oraindik prest ez gaudela ikusi da".

Izan ere, talde berria baitu Reinok. "Taldea gaztea dut eta gehienek lehen urtea dute maila honetan. Beraz, aurtengo helburua jokalariek prestatzea da. Hala ere, etorkizun handia izan dezaketen jokalariek daude eta aurten ezustekoren bat eman ahal digute".

Lehen laurdenean Ostadarrek hartu zuen aurre erreboteei esker, 10-5. Baina taldearen defentsako hiru akatsek Eskoriatza markagailuan gerturatzea ekarri zuen 10-11. Indarrak berdinduta jarraitu zuten partida eta 16-19 amaitu zuten laurdena.

Bigarren laurdenean, Eskoriatzak defentsa aldatu eta nagusi izan zen. Urdin-beltzak errebotean nagusitzen saiatu ziren, baina akatsek eta urduritasunak Eskoriatzak tarte irekitzea ekarri zuen. 4-20 izan zen partziala.



Eskoriatzaren aurka jokatu zuen Kadete Errendimendu taldeak. TXEMA VALLES

Aurreko laurdeneko martxak jarraituko zuela zirudien arren, hutsarte baten ostean, Ostadarrek kadeteak osatu eta intentsitatez jokatu zuten tarte txikituz.

Azken laurdenean, guztia erabakia zegoenez, jokatu ohi ez duten jokalariei minutuak emateko eta gauza berriak probatzeko baliatu zuten taldeak.

Jonatan Reinok adierazi duenez, "emaitzak berdindio, entrenamenduetan lantzen ditugun gauzek hobera egiten badute. Talde honek hobetzeko marjina du eta ziur gaude, bigarren itzulian, gehiago borrokatu ahalko garela".

Jardunaldia jokatu zuen beste taldea, senior taldeak izan zen. Garaipenaren bidetik jarraitzen du Ander Otaegiren taldeak. Lehengo astean TAKE garaitu ostean, oraingoan 53-57 irabazi zion Goierri AYMA taldeari.

Bi talde gehiago lehiatzen

Asteburu honetan, Ostadar SKTko bi talde gehiagok emango diote hasiera denboraldiari.

Senior III. mailako taldeak etxean jokatu du lehen jardunaldiko partida AZ Casa de La Riojaren aurka. Junior Emakumezko partaidetza taldeak ere lehen norgehiagoka izan beharko zuen, baina atsedena du.



Intzako bikotea Ezker Hormako txapelketako partida batean lehiatzen. TXEMA VALLES

2. mailako seniorrak multzoko buru, atsedeneko jardunaldira

Laugarren jardunaldian ere garaipena erdietsi zuen Intzako bikoteak Zazpi Iturriren aurka, 22-18

Txintxarri

Aste honetan ongi merezitako atsedena hartuko du Intza elkarteko 2. senior mailako bikoteak. Ezker Hormako txapelketako lau jardunaldi jokatu ditu eta lauetan garaipena erdietsi du. Urriaren 10ean, Zazpi Iturririko bikotearen aurka lortu zuten garaipena Michelingo kirol guneko pilotalekuan.

Bi bikoteak partidarik galdu gabe iritsi ziren norgehiagokara. Partida gogorra espero zuten Intzakoek eta horrela izan zen, erritmo handia ezarri zioten jokoari lehen momentutik bi bikoteek eta tanto politak egin zituzten.

Partida hasieran etxeko bikotearen tantoei ongi erantzuten zion Amezketako bikoteak. Baina bosna berdindu ostean, Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak partida puskatu zuten. Pixkanaka partidaren

nagusitzen joan ziren eta tarte ireki zuten, 21-12.

Partida amaitzean zegoela zirudienean, Zazpi Iturririko bikoteak markagailuan hurbiltzea lortu zuen, sei tanto jarraian eginez. Baina atzelariaren akats batek partidari amaiera eman, 22-18, eta Intzari bi puntuak eman zizkion. Horiei esker, euren multzoko buru doa Intza atsedeneko jardunaldira.

Kadeteak lehiatzen

Seniorrek atsedena duten arren, lehen faseko azken aurreko partida jokatu beharko lukete 2. mailako bikoteek. Intza 1 bikotearen partida, ordea, bertan behera geratu da Aloña Mendiko bikoteko kide bat berrogeialdian dagoelako.

Intza 2 bikoteak Hernani 1 bikotea izango du arerio, bihar, Michelingo kirol guneko pilotalekuan.

Zaldi lasterketez gozatzeko aukera, azaroan eta abenduan

Dos Hermanaseko denboraldia bertan behera geratu eta lau proba hartuko ditu Hipodromoak

Txintxarri

Dos Hermanaseko Hipodromoko denboraldia bertan behera geratu ostean, Donostiako Hipodromoak ez ohiko udazkeneko denboraldia izango du aurten. Zaldien zaletuek lau jardunaldiz gozatzeko

aukera izango dute azaroan eta abenduan.

Andaluziako hipodromoak aurreikusita zeuzkan hamabi jardunaldiak Madril, Donostia, Manacor (Balear Uharteak) eta Pinedako (Sevilla) hipodromoan

artean banatuko dituzte. Madrilgo hipodromoak lau saio hartuko ditu, Manacorrek hiru, Pinedak bakarra eta gainerako lauak Donostiako Hipodromoan lehiatuko dira.

Hipodromoak udazkeneko denboraldiko hitzorduak azaroaren 13an, 20an eta 17an eta abenduaren 8an izango direla iragarri du. Oraindik detaile asko zehazteke daudenez, hurrengo asteetan joango da lau jardunaldi horiei buruzko informazioa eskaintzen.



Zaldi lasterketak izango dira azaroan eta abenduan, Hipodromoan. TXINTXARRI

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA
Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.

Haurrak zaindiko nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 630 313/ bentley.ma@gmail.com

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN
Etxea partekatzeke neska baten bila gabiltza. Interesatuok jarri nirekin harremanetan, 666 320 520. (Nekane).

Etxea behar da lasarten bizi dan familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanetarako zenbakia, 661 39 62 99.

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aukia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

ESKELA

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48

edo TXINTXARRI erredakzioan


► Eskela Txintxarri paperean: 80 €

► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90 €

Txintxarri: doan eta euskaraz

Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iñaki Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artebe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Julene Iraola eta Uxue Odriozola,
Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose
Lanchas, Iñigo Garcia eta Igone
Mendizabal.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 16

URNIETA Ipuin kontalaria
Urnietako udal liburutegiak, irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin, etxeko txikientzako ipuin kontaketa saioa antolatu du. Saioa lau urtetik gorako haurrentzako izango da eta doakoa. Marisa Tabernero arituko da ipuin-kontalari lanetan, euskaraz.
Lekaio kultur etxea, 17:30ean.

LASARTE-ORIA Aurkezpena
'Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak' dinamika martxan jarri dute eskualdeko zenbait artegilek, "inoiz baino garrantzitsuagoa" iruditzen zaielako "elkar ezagutzea, sareak eraikitzea eta proiektu amankomunak sortzea. **Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoa, 18:00etan.**

ANDOAIN Musika
Oreka TX taldearen emanaldia. *Koklea* da azken bost urteetako ibilbide musikalaren emaitza. Sarrerak 12 euro balio ditu. Gazteek, berriz, 3 euro.
Bastero kulturunea, 21:30ean.

LARUNBATA 17

LASARTE-ORIA Euskal Jaia
Ttakun Kultur Elkartek ez du urteroko Euskal Jairik antolatuko aurten, baina ekintza sinboliko gisa, kalera baserritar jantzita irteteko deia egin dute antolatzaileek. Horrekin batera, balkoiak eta erakusleihoak atontzeko eskaera egin diete herritarrei.
Lasarte-Oria, egun osoan zehar.

HERNANI Irteera
OndarHernani ekimenari esker, alde zaharraren bisita komentatua egingo da. Hernaniko ondarea ikustarazteko helburua du ekimenak.
Alde zaharra, 10:00etan.

USURBIL Antzerkia
Zaldi urdina izeneko antzerkia ikusteko aukera. Aingeru, 17 urteko mutil gaztea, desagertu egin da, tekno jaialdi batean gazte bat bihotzkeoak jota hil ondoren. Zaldi Urdina deitzen den droga berri batek eragin dio heriotza gazteari. Sarrera aurrez, Lizardin, 8 euro; egunean bertan, Sutegin, 10 euro.
Sutegi auditorioa, 20:00etan.



LASARTE-ORIA Euskal Jaia. Euskal Jaia ez du ohiko moduan ospatuko Lasarte-Oriak aurten. Parte hartu ohi duten eragileek erabaki dute ospakizunari buelta bat eman eta aurten ekintza sinbolikoa egitea. Urriaren 17an, larunbatez, baserritarrez jantzita kalera ateratzera animatu dituzte herritarrek, eta baita etxeetako balkoiak zein komertzioetako erakusleihoak atontzera ere.
Lasarte-Oria, egun osoan zehar.

IGANDEA 18

USURBIL Irteera
Urdaiaga ezagutuz irteera gidatua. Inguruan zeuden zetak, burdinolak, eta baserrien historia ezagutzeaz gain, Irisasi-Andatza eremutik ibilbide zoragarri bat egiteko aukera izango da. Informazioa eta izen ematea: donostialdea@behemendi.eus/656705243. Behemendi eta Beterri-Buruntza Udalak antolatua.
Santueneko plaza, 9:30ean.

ASTEARTEA 20

LASARTE-ORIA Ipuinak
Ipuinaren orduaren denboraldiko lehen saioa egingo da. Kontu Kantoiko lagunek 4, 5 eta 6 urteko haurrak kontakizunen munduara eramango dituzte. Edukiera mugatua izango da, hamabi haurrentzat. Gonbidapenak Manuel Lekuona kultur etxeko liburutegian jasoko dira.
Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian, 18:00etan.

ASTEAZKENA 21

LASARTE-ORIA HAPO
HAPO Hiri Antolamendu Plan Orokorraz hitz egiteko hurrengo saio presentziala antolatu du udalak. Dokumentua hiri eredua definitzeko oinarritzko plana da

eta udalerri bateko lurzorua erabilerak, hirigintzako araudia, azpiegiturak eta abar definitzen ditu. **Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan, 18:00etan**

OSTEGUNA 22

LASARTE-ORIA Literatura txokoa
Basa eleberrari buruzko solasaldiak emango dio hasiera ikasturte honetako Literatur Txokoko saioei. Miren Amuriza egilea saioan egongo da. **Udal Euskaltegiko erabilera anitzeko aretoa, 19:30ean.**

USURBIL Aurkezpena
'Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak' dinamikaren aurkezpena.
Udarregi ikastolako erdiko aretoa, 18:00etan.

OSTIRALA 23

LASARTE-ORIA Flamenkoa
Flamenco Abierto ikuskizuna antolatu du Semblante Andaluzek, FARAE jardunaldien barruan. Eszenatokian Laura Guerra, Christian Martin, Fabiola Santiago, Eduardo Agudo eta Ruben Portillo izango dira flamenkoaren adar ezberdinak erakutsiz. **Gonbidapena behar da. Manuel Lekuona, 19:30ean.**

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Drogas dokumentala
Ostirala: 22:00.

¡Va por vosotra!
Igandea: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

Coco, el pequeño dragón. Aventuras en la jungla
Larunbata: 17:00.
Igandea: 17:00.

Rifkin's Festival
Larunbata: 19:30, 22:15.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 19:30, 22:15.

ASTIGARRAGA

ERRIBERA

Asito Erregea
Larunbata: 17:00.

HERNANI

BITERI

El oficial y el espía
Ostirala: 22:30.
Larunbata: 19:30.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 16:30.

Koko, dragoi txikia oihanean
Larunbata: 16:30.
Igandea: 16:30.

USURBIL

URBIL

No matarás
Ostirala: 16:30, 17:40, 19:10, 20:20, 21:50.
Larunbata: 16:30, 17:40, 19:10, 20:20, 21:50.
Igandea: 16:30, 17:40, 19:10, 20:20, 21:50.

Greenland: El último refugio
Ostirala: 15:50, 19:00, 22:00.
Larunbata: 15:50,

19:00, 22:00.
Igandea: 15:50, 19:00, 22:00.

Akelarre
Ostirala: 18:40, 22:10
Larunbata: 18:40, 22:10
Igandea: 18:40, 22:10

Como perros y gatos: La patrulla unida
Ostirala: 16:00, 19:40.
Larunbata: 16:00, 19:40.
Igandea: 16:00, 19:40.

Eso que tú me das
Ostirala: 20:10, 22:20.
Larunbata: 20:10, 22:20.
Igandea: 20:10, 22:20.

Padre no hay más que uno 2
Ostirala: 18:30, 21:10.
Larunbata: 18:30, 21:10.

Igandea: 18:30, 21:10.

Pinocho
Ostirala: 16:20, 19:30.
Larunbata: 16:20, 19:30.
Igandea: 16:20, 19:30.

Rifkin's Festival
Ostirala: 22:40.
Larunbata: 22:40.
Igandea: 22:40.

El Rey León
Larunbata: 17:10.
Igandea: 17:10.

Shin chan en Australia
Ostirala: 17:00..
Larunbata: 17:00.
Igandea: 17:00.

Tenet
Ostirala: 21:20.
Larunbata: 21:20.
Igandea: 21:20.

Trasto
Ostirala: 16:10.
Larunbata: 16:10.
Igandea: 16:10.

El arco mágico
Ostirala: 17:30.



LABURPENA

Drogas dokumentala

Zuzendaria: Natxo Leuza. **Gidoilariak:** Natxo Leuza, Alex Garcia de Bikuña. **Musika:** Mikel Salas. **Argazkia:** Iñaki Alforja. **Herr:** Espainia(2019). **Testigantzak:** Enrique Villareal, Rosendo Mercado, Fito Cabrales, Christina Rosenvinge, Carlos Tarque, Kutxi Romero, Gorka Urbizu, Javier Gallego, Mamen Irujo. **Iraupena:** 80 minutu.

Rockero baten izpirituan barrena

Okendo Zinema Taldeak Drogas abeslari ospetsuaren bizitzan oinarritutako dokumentala eskainiko du bideo-forumean.

Enrique Villareal *Drogas* Barrikada taldeko abeslari eta baxu jotzaile ohiaren dimentsio eta isurialde edo alderdi guztiak aztertzen dituen dokumental biografikoa da Natxo Leuza zinemagile iruindarrak egindakoa.

Giza erretratu horretan, memoria indibidualak eta kolektiboak bat egiten dute, eta gaztelaniazko Rock & Rollaren munduko musikari

garrantzitsuenetako baten ibilbide historikoan eta bizi-ibilbidean sakontzen da. Hala nola, Txantrean nola bizi zen 1970eko hamarkadan, German Rodriguezen heriotza, nola hasi zen *Drogas* Barrikada taldea sortzen Iruñeko merkatuan, eta abar.

Artista berezi honek dituen aurpegi eta hartu dituen bide guztiak ikusi ahal dira bere hitz eta gertuko testigantzen bitartez.

Donostiako Zinemaldian ikusi zen estreineko dokumentala, Zinemira sailean.

Euskararen Maratoia

gogoan

Asteburu berezia behar zuen urriaren 17 eta 18koak Lasarte-Orian. Okendo plazan batu eta euskararen festa handia ospatu behar zuten lasarte-oriatarrek, baina COVID-19ak eragindako egoera dela eta, datorren urtean ospatuko da X. Euskararen Maratoia

Txintxarri

Ate joka dagoen asteburuak, asteburu ederra behar zuen Lasarte-Orian. Lau urte zain egon ostean, X. Euskararen Maratoia ospatzeko asmoa zuten lasarte-oriatarrek pandemia iritsi aurretik, baina, koronabirusak, asmo eta gogo guztiak zapuztu ditu. Hain zuzen ere, COVID-19ak eragindako egoera dela-eta, aurtengo euskararen festa handia datorren urtera atzeratzeko erabaki hartu dute antolatzaileek. Aurtengoa, *Sentitu, pentsatu, ekin!* antolatzen hasiak ziren ordea, baina, egindako lanak ez dira alperrikakoak izan; datorren urterako bidea zabaldu baita dagoeneko.

Orain arte, bederatzi

Orain 34 urte ekin zioten udalak eta Ttakun Kultur Elkartek Euskararen Maratoia antolatzeari. 1986. urteko 40 ordu baietz! izan zen lehenengoa; urriaren 25 eta 26a zen, larunbat eta igandea eta Joxe Mari Agirretxek, Bixente Beltranek, Mailu Arrutik, Jexux Izetak, Agus Mujikak, Anabel Izagirrek, Natxo Izetak eta Jon Iñaki Elexpuruk osatu zuten zortzikotea.

Bi urte geroago etorri zen bigarrena: Baietz 40 ordu berriz. 1988ko

maiatzaren 7 eta 8an egin zuten orduko maratoia, eta urte horretan ere zortzikote berak errepikatu zuen oholtza gainean. Lau urte beranduago iritsi zen hirugarrena. 40 ordu? Errex! lelopean bildu ziren lasarte-oriatarrek 1992. urtean, Okendo plazan. Azaroaren 7 eta 8an egin zuten orduan maratoia, eta ordura arteko zortzikoteko zenbait kide mantendu baziren ere, berriak batu ziren: Iñaki Petxarroman, Nekane Lartzabal, Aitor Atxega, Ixabel Bereziartua eta Pepi Arsuaga.

40 ordu gogoz! izan zen laugarrena. 1996ko urriaren 26an eta 27an ospatu zuten, eta Tximua irratiairen bidez, zuzenean eman zuten asteburuko ekitaldia.

Bosgarrenean eguraldi txarra

2000. urteko urriaren 21eta 22an egin zuten V. Euskararen Maratoia, baina eguraldiak ez zuen batere lagundu eta, horrek erabat baldintzatu zuen asteburu horretako ekintza; aurreikuspenak aldatu behar izan zituzten. Euriteen ondorioz, zenbait ekintza Michelingo frontoira lekualdatu behar izan zituzten, eta haurrentzako antolatutako lehenengo herri bazkaria, kamioi baten trailerrean egin zuten. 2004. urtekoan, berriz, herriko artisauek, eskulanen postuak jarri eta saldu zituzten. VI. Euskararen Maratoia izan zen ordukoa eta urriaren 23an eta 24an ospatu zen.

2008. urteko VII. Euskararen Maratoiak ere izan zuen bereizgarriarik. Urte horretako euskararen festarako bi oholtza muntatu zituzten antolatzaileek; bat aldagela gisa erabili zuten, eta, bestea, berriz, jendaurreko ekintzetarako. Horrez gain, lehenengo aldiz, karpa erraldoi baten barruan bildu ziren maratoiko parte hartzaile guztiak.

Lau urte geroago, 2012. urteko VIII. Maratoian haurren ongietorria izan zer berrikuntzetako bat. Horrela 2008. eta 2012. urte artean jaiotako txikiei egin zieten harrera.

Duela lau urtekoa, azkena

Lasarte-oriatarrek bizitu duten azken maratoia 2016. urtekoa izan da. *Irten armairutik* bederatzigarrena izan zen, eta bertan agertu ziren, lehen aldiz Ahobizi eta Belarriprest figurak.

Aurten ezinezkoa izan da, baina ea datorren urtean hamar atzamarrak mugituz dantzatzen dugun elkarrekin; sentituz, pentsatuz eta ekinez!



1986. urtean, lehenengo Euskararen Maratoiko argazki historiko bat. TXINTXARRI



1988. urteko II. Euskararen Maratoiko zortzikoteko kideak. TXINTXARRI



1992. urtean '40 ordu? Errex!' leloa erabili zuten maratoirako. TXINTXARRI



Herriar ororen bilgune da Okendo plaza Euskararen Maratoian. TXINTXARRI